



**Comunidades Cristianas Fe y Justicia**  
**Fede eta Justizia Kristau Komunitateen Elkartea**

---

**IDEIA-BILDUMA**

**“FEDE ETA JUSTIZIA  
KRISTAU KOMUNITATEEN” ELKARTEA**

**Bilbao, 1989ko azaroaren 1a.**



## **IDEIA-BILDUMAKO**

### **I. NORTASUN**

1. Fedea eta justizia elkarrekin
2. Jainkoaren erreinua
3. Behartsuenekiko konpromisoa

### **II. KONPROMISO**

4. Konpromiso bakarra eta globala
5. Konpromisoa gizarte zibilean
6. Konpromiso arrazionala
7. Konpromiso leku naturaletan
8. Heziketa
9. Konpromisoa periferian edo ta muinean
10. Bizitza eta akzioa
11. Erantzun erlijiosoa eta soziala

### **III. ELIZA, KOMUNITATEA**

12. Eliza Komunitateak
13. Komunitate eta konpromisoaren arteko harremana
14. Komunitatea edo bidalitakoen taldea

### **IV. ESPIRITUALTASUNA**

15. Bizitza eta ekintzei lotuta
16. Esperientzia erlijioso berria, Jainkoaren hitza, sakramentuak
17. Eredua, Maria, Jesusen ama
18. Maitasun kontua da

### **V. HELBURUA ETA HELMUGA**

19. Jainkoarengandik jaiotzen den bizitza
20. Jesus, lehen militantea



## I. NORTASUN

1.  
Fede eta Justizia kristau komunitateen Elkarte da  
Fedea eta Justiziaren lotura baieztatzen duena.

Gure xedea gizartearen eraldaketaren alde lan egitea da  
Irizpide ebanjelioekin.

Gure xedea mundu solidarioa da,  
Gizarte aske eta zuzena, Jainkoari irekia.

Leku naturaletan konpromisoa hartzen dugu  
eta giza eskubideak arriskutan dauden tokietan.

Gure kemenak gure bizitzak eraldatzen ditu,  
Badakigulako lur berria  
Euren erraietan daramatenak bakarrik altxa dezaketela.

Hori dela eta, ebanjelioari jarraituz bizi nahi dugu  
Jesusi jarraitu eta bere kausarekin jarraitzea.

2.  
Fedea eta Justizia esatea Jainkoaren erreinua esatea da.

Ebanjelioan,  
Jainkoaren erreinuak gizarte berria iragarri eta eskatu egiten du,  
Jainkoaren asmoaren arabera eraikia.  
Hauxe bera da fedea eta justiziaren utopia.  
Horrexegatik dagokio ebanjelioaren bihotzari.

Utopia horretara begiratzen dugu, Jesusek bezala.  
Jainkoaren erreinua ereitegatik bizitza eman zuen.  
Bere lana jarraitzeagatik  
Guk bizitza bere esku jartzen dugu.

Jainkoaren erreinua gure muina da.  
Jainkoaren erreinua gure ardatz eta motorra da.  
Jainkoaren erreinua gure bizia da  
Eta gure berri ona.



3.

Fedea eta Justiziak behartsuenganako konpromisoa esan nahi du,  
Jainkoaren erreinua eta gizakiarena  
Haiengan oinarritzen baitira.

Ebanjelioak adierazten digu  
Jainkoaren erreinuak behartsuen askapena eskatzen duela.  
Behartsuak dauden tokian, norberaren eta gizartearen bekatua dago.  
Behartsu asko dagoenean,  
Bekatu handia eta Jainkoaren erreinu gutxi dago.  
Egungentia jaiotzen da behartsuak bizi eta pertsonak direnean  
Behartsuen kausa Jesusena da

Giza arrazoimena antzekoa den horizontean kokatzen da.  
Mundu aberats oparo honetan,  
Munduko behartsuek salatzen dute  
Lehen Munduko ustelkeria eta bere sakoneko ankerkeria  
Behartsuak dagoen tokian, ez dago denontzako demokraziarik.  
Behartsu asko dagoen tokian, askorentzat ez dago demokraziarik.  
Herrialde aberatsa behartsuek beteta edo inguratua  
Ez da herrialde demokratikoa.  
Behartsuen kausa ez da gizakiaren kausa.

Gure izatearen muinean behartsuak daude.  
Fedea eta justiziaren aldeko apustua egiten dugunean,  
Haien alde egiten dugu.  
Euren kausa geurea da eta gure bizitzak itxuratu behar ditu.

## II. KONPROMISOA

4.

Elkartearen konpromisoa bakarra eta orokorra da  
Pertsona eta bere bizitza osotasunean berarekin dakartza  
Parte hartzea exijitzen du.  
Behartsuen eskubideak arriskutan dauden tokietan kontzentratzen da.  
Eta beharreko eraldaketak egia bihurtzeko.  
Bide pertsonala, jarrera, ohitura eta bizitzakoa bere barnean sartzen ditu.

Hauxe da gure bokazioa.  
Horrelaxe bizi behar dugu gure Jainkoaren erreinuaren aldeko apustua.



5.

Gure lekua gizartean dago.

Behartsuenenganako aukera  
Munduan egote konprometitua izatera deitzen digu.

Legamiaren parabola  
Orean sartzera bultzatzen gaitu,  
Gizarte berriaren alde lan egiten dutenen kide bezala.  
Gure akzioa eta testigantzaren arlo nagusiak  
Giza plataforma eta instituzioak dira.

Gure ildoak eraldaketa eta aldaketaren akzioa da.  
Ekintza sozialak nahiko ez direla baieztatzen dugu  
Egiturazko aldaketak sortzen ez badituzte.  
Konpromiso politikoa guretzat garrantzi handikoa da.

Sostengatu eta laguntzen dugu, norabide honetan,  
Gizartean kristauen egote publikoa.

6.

Fedea eta justizia esatea giza arrazoia eta zientziaren ekarpenak  
erretserbarik gabe onartzea da;  
Jainkoaren erreinua munduan  
Gizartearen bitartekaritza pasabehar da.

Honegatik, arrazoia eta bitartekaritza baztertzen dituen  
fundamentalismoaren aurkakoak gara.

Lotsarazten digun fedea ere baztertzen dugu  
Fedea izatea edo fededuna dela erakustez lotsarazten digun fede mota.  
Arrazoia eta zientzia beharrezkoak dira, baina ez nahikoak.

Fede bizia eta arrazionaltasun kritikoa batu nahi ditugu.

7.

Konpromisoa leku naturaletan hasten da.  
Haien artean senidea, lana, ikasketak, auzoa  
Eta batzuentzat, euren gustukoak diren beste ekintza batzuk.



Leku hauetan,  
Lana ondo egina eta etekina  
Oinarrizko betebeharrak dira.  
Honetaz gain, fedearen testigantza eman behar dugu  
Eta justiziaren alde lan egin.

Konpromiso honek aldarrikatzekoak diren  
mugimendu eta aldarrikatze antolaketetan parte hartzera eskatzen digu  
Eta ez badaude sortzera.

8.  
Bizitza programa honek heziketa behar du.  
Gure trebakuntza errealitatean oinarritu behar da  
Eta praktikari lotuta, oinarrizko ekai bezala.

Lau atal dauzka batez ere:  
Lanbidea, izaera, teologia eta gizartea.

Gure Elkartera datorrenak  
Badaki ahalik eta heziketa hobe  
lortu behar duela  
Gure Jesusenganako erantzunaren zati bat da.

9.  
Konpromisoa periferian edo muinean gauza daiteke,  
Hau da, behartsuak dauden tokian edo haien kausa arriskutan dagoen tokian.

Baina kasu bietan,  
Eurekiko harreman zuzena behar dugu,  
Euren errealitatea banatzeko eta errealitateak gu emankor bihurtzeko.  
Behartsuek Jainkoa erakusten digutelako eta ebanjelizatzen gaituzte.

Behartsuen esperientzia eduki gabe,  
Zaila da Jesus ezagutzea eta eraldatzea.  
Eta bere kausa onartu gabe, ezinezkoa.

Gure eraldaketa eta konpromisoa behartsuengan oinarritzen dira,  
Bai periferian bai muinean ere.



10.

Elkarteko komunitateak  
Bizitza eta akzio taldeak dira  
Biak batera interesatzen zaizkigu.

Akzioak bizitza kristauagora eraman behar gaitu  
Baita bizitza aldaketa eta borroka handiagorako akziora.  
Akzioak aldaketa pertsonalak sortarazten ez dituenean,  
Hutsa dela pentsatu behar dugu, eta alderantziz.

Gure izaera akzioa eta ekintza uztartzen duten  
lau ataletan laburbiltzen da:  
fedea, justizia, komunitatea eta trebakuntza.

11.

Gure bizitza ildo erantzun erlijiosoa eta soziala.

Erljio arloan  
Konpromisorik gabeko fedea;  
Banakako harremanen maitasunaren murrizketa  
Ebanjelioaren bazterketa pribatuaren arlora,  
Erljioaren harmonizazioa aberastasunaren bilketarekin;  
Kristau bidegabekoak diren sistemei lotutako  
Egoeren aurka azaltzen gara.

Arlo sozialean  
Diktadura eta antzekoak diren erak;  
Giza eskubideen urritasuna;  
Demokrazia ekonomikarik gabeko demokrazia politikoa;  
Lehiaren nagusitasuna eta giza desberdintasunak;  
Gizartearen antolaketak  
Indartsuenak edo kontzientzi txikikoen garaipena  
Egoeren aurka azaltzen gara

Gure jarrerak erantzun gogorra eduki dezake.  
Jesusek holako kasuetan poztu behar garela irakasten digu,  
Ebanjelioaren marka daramagulako.  
Esperientzia hau gudan gertatuko ahal da!



### III. ELIZA, KOMUNITATEA

12.

Elizako kideak gara.  
Gure komunitateak elizako komunitateak dira.

Behartsuenen kausarekin identifikatzen den  
Eliza nahi dugu  
Hartzigarria den eliza sostengatzen dugu  
Kristauen ekintzarekin giza bitartekotzan.

Gure ahalmenen arabera, elizarekin lan egin behar dugu  
Gure bizitza eta gizartearekiko konpromisoaren bidez,  
Elizaren lana ere egiten dugu.

13.

Gure Elkartean,  
Bizitza komunitarioa eta konpromisoa uztartuta daude.

Komunitatea gizarte berriaren hastapena da.  
Gure konpromisoa komunitateko anaitasunezko harremanak  
Beharreko bitartekotzekin  
Mundura eramatean datza.

Konpromisoak gure bizitza komunitarioa berrelikatzen du,  
Bilatzen dugun gizartearen ezaugarriak  
gure taldetan egia bihurtzera garamatza eta.

Honelakoa da Jesusen proiektua,  
Komunitate edo zonalde askatuekin hasten dena,  
Askapen unibertsalaren oinarri legez.

Gure akatsak izan arren,  
Gu Jesusen esparru askatua gara,  
Hein handiagoan izateko itxaropena dugu.  
Dohainik den dohain horren poza sentitzen dugu.



14.

Gure bokazioaren sustraia,  
Jesusengandik jasotzen dugun zeregina da.

Jesusek bidaliak gara.  
Jesus gure komunitatera etorri da  
Eta gutako bakoitzari eta denoi esan digu:  
Aitak ni bidali ninduen modura,  
Era berean, nik zuek bidaltzen zaituztet.  
Gero, guggan putz egin du, esaten zuen bitartean:  
Jaso ezazue espiritu santua,  
Bekatua garaitzeko indarra dena  
Eta Jainkoaren erreinua ezartzeko.

Jesusek mundura bidali gaitu  
Bere fede eta justiziako egintzarekin jarraitzera  
Aitagandik jaso zuen zeregin bera gure esku utzi du  
Bere kideak gara  
Jainkoaren erreinua eraikitzeko zeregin handian.

Bera berriro hurbiltzen zaigu eta diosku:  
oztopoak aurkitu zenituzten, munduan bekatua dagoelako.  
Baina ez egin atzera;  
Nire moduan garaitu egingo duzue.

Konpromisoa Jesusen misio modura bizitzeak  
Poztasuna, ziurtasuna eta indarra ematen digu.

#### **IV. ESPIRITUALTASUNA**

15.

Fede eta Justiziaren espiritualtasun  
Bizitza eta ekintzei lotuta dago.

Bere iturria Jainkoaren erreinuarekiko konpromisoa da  
Eta esperientzia komunitarioa.



Norberaren leku naturaletan garatzen da  
Eta ardura jartzen dugun gizarte plataformatan.

Jainkoaren erreinuaren bilaketa oldarkorraz elikatzen da  
Arlo horiexetan.

Arrakasta, porrota, zailtasun eta asmatzeko unetan  
Maitasunezko eta indartsua den berarekin darama.  
Jesusen marka jasotzen du,  
Benetako konpromisoari  
nahitaez laguntzen dion gurutzearekin.

Ezkonduentzat,  
Familia jainkoaren esperientziaren funtsezko lekua da.

Beste batzuentzat ezkongabe edo alargunen bizimodua da  
prest egotearen bokazioa,  
Presbitero ministerioa

Gure bizitza Jainkoa eta bere erreinuaz bete behar dugu.

16.  
Otoitzak gure bizitzan garrantzi handia du.  
Bera gabe, bizitzako eta ekintzako espiritualtasun  
Nahi on eta teoria polita baino ez da izango.

Jesus sarritan otoitz egitera bazterten zen  
Bere ekintza sendoak baino lehenago eta gero  
Bere urratsak jarraitu behar ditugu.

Otoitza eta justiziaren uztardurak  
Barneko unibertsoa berregituratzen du  
Eta esperientzia erlijioso berria sortzen du  
Etengabe eskatu egin behar dugu,  
Garai honetan espirituaren agerraldia moduan.

Jainkoaren berba, ebanjelioak batez ere,  
Gure fede bizitzaren oinarrian dago.

Sakramentu bizitzak gure Jainkoaren esperientzia koroatzen du.



17.

Maria, Jesusen ama,  
Bere kantan fede eta justiziako eredu agertzen zaigu.

Jainkoaren erreinuaren etorrera iragartzen du  
Eta balore eta egoeren erabateko aldaketa.

Erreinuak sortzen dituen gatazkak iragartzen ditu  
Eta behartsuen oinarrizko eginkizuna  
Munduan duen hedapenean.

Bere buruarengan azaltzen du  
zerbitzu hau apalei agertzen zaie  
Jainkoa era zuzenean bilatzen dutenak.

Jainkoaren alaitasunarekin pozten da,  
Berak bere pertsonarengan eta munduan egiten duen lanagatik.

Maria argi handia da guretzat.  
Jainkoaren erreinuaren alde parte hartzen eta berarekin gozatzen.  
irakasten digu

18.

Fedea eta Justizia maitasun kontua da.

Borroka egiten dugu maite dugulako.  
On egiteko fedea eta justizia hedatzen dugu.  
Gure Elkartearen lehenengo urratsa maitatzen hastea da.

Maitasunak akziora garamatza.  
Oso maite duzu, oso borrokatzen zara.  
Gutxi borrokatzen zara, gutxi maite duzu.  
Maite ez duena, bere interesengatik bakarrik mugitzen da.

Maitasunik gabeko konpromisoak zama eta larritasuna bihurtzen da.  
Maitasunak mugitzen gaituenean,  
Nekea garaitzen dugu eta poztasuna ematen dugu.  
Maitasunak hizki larriekin  
Geure burua emateko gogo bizia ematen digu  
Hau da gutako askoren esperientzia.



Maitasuna mina eta gozamina da  
Benetako maitasunaren seinalea  
Bestearen bizipozak bere egitea da  
Batez ere behartsuenak.

Samariar onaren erruki heldua edukitzea desiratzen dugu  
Eroritako gizonarengana hurbiltzeko gai dena.

Konpromiso soziopolitikoaren maitasun anonimoan  
Mina eta injustiziaren aurpegiak ikus ditzagun.

Honela, Jesusen sentimendu berak edukiko ditugu,  
Benetako Samariar ona izan zena.

## V. HELBURUA ETA HELMUGA

19.  
Gure bizia Jainkoarengandik sortzen da.  
Berarekin aurrez aurre dagoen oro,  
Garbitu egiten da,  
Berpiztu egiten da  
Eta bere seme edo alaba bihurtzen da.

Jainkoaren seme edo alaba oro  
Abian jartzen da berehala,  
Anai-arreba behartsuen etxea eta ogiaren bila.

Berarengan ez daudenek,  
Poza eta min hauen berri ez dute  
Jainkoarengan jaio ez direlako.  
Beharbada lege erlijiosotik jaio dira.  
Eta euren fede eta justiziaren hautaketa azalekoa da.

Jesusek ematen duen graziazko ukitzea dago  
Zakeori hodeietan ikusi zuenean eman zion bezalakoa.  
Jainkoa bihotzean jaiotzea lortzen duen ukitzea.



Komunitate honetara gatozen denok  
Ukitze hau behin baino gehiagotan jaso nahi dugu,  
Jainkoarena gehiago izateko  
Eta neba-arreba txikiena.

20.

Jesus da gure erreferentzi puntua,  
Jainkoaren erreinuko lehenengo militantea.

Jainkoaren erreinua hasteko eta iragartzeko zeregina jaso zuen.  
Bere beharretara maitasunez eta erabateko ematearekin  
Bere bizitza fedea eta justiziaren aldeko borroka izan zen.

Konpromiso horrek bere bizia itxuraldatu zuen  
Txirotasun, apaltasun eta adorea  
Gatazkak sortu zituen. jazarpena jasan zuen eta gurutzean amaitu zuen.  
Berpizkundeak bide, egia eta bizitza sagaratu zuen.  
Elkartera gure bizitza beraren modura itxuraldatzera gatoz  
Bere ikurra eraman nahi dugu, berpizkundearen aitzindaria dena.

**Bilbao, 1989ko azaroaren 1a.**